

AURRETIAZKO KONTSULTA
PUBLIKOAREN IZAPIDEA, FORU-ARAU
HONEN AURREPROIEKTUA EGITEKO
PROZEDURA HASI AURREKOA:
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO
TRIBUTU-SISTEMAKO ZENBAIT ZERGA
ETA BESTE TRIBUTU-ARAU BATZUK
BERRIKUSTEKO FORU-ARAU.

TRAMITE DE CONSULTA PÚBLICA
PREVIA A LA INCOACIÓN DEL
PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN
NORMATIVA DEL ANTEPROYECTO DE
NORMA FORAL PARA LA REVISIÓN DE
DETERMINADOS IMPUESTOS DEL
SISTEMA TRIBUTARIO DEL TERRITORIO
HISTÓRICO DE BIZKAIA Y OTRAS
NORMAS TRIBUTARIAS.

Testu arauemailearen aurrekariak eta
araudi berriaren bidez konpondu nahi den
arazoa

Antecedentes del texto normativo y
problema que se pretende resolver a través
de la nueva regulación

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko
zergaren 2014ko erreformari eta
sozietateen gaineko zergaren 2018ko
erreformari buruzko ebaluazio-txostenek,
zeinak Bizkaiko Batzar Nagusietan 2024ko
urtarrilaren 15ean aurkeztu baitziren,
agerian uzten dute bi zerga horien ezaugarri
diren printzipioak Bizkaiko tributuan
errotuta daudela, eta berresten dute oinarri
sendoa direla egungo eta etorkizuneko
erronkei zerga-sistematik aurre egiteko.

Los informes de evaluación de las reformas
del Impuesto sobre la Renta de las Personas
Físicas y del Impuesto sobre Sociedades de
2014 y 2018, respectivamente, presentados
en la Juntas Generales de Bizkaia el 15 de
enero de 2024, ponen de manifiesto la
consolidación de los principios que
caracterizan a ambos impuestos en el
sistema tributario de Bizkaia y confirman
que constituyen una base sólida para
afrontar retos presentes y futuros desde la
fiscalidad.

Berebat, txosten horiek egiaztatzen dute bi
zerga horiek, gaur egun taxututa dauden
moduan, garrantzi handia dutela Euskadiko
erakunde-mailen eskumeneko zerbitzu
publikoak emateko finantza-
nahikotasunaren printzipioa bermatzeko.

Asimismo, estos informes constatan la
relevancia de ambas figuras tributarias en su
actual configuración para la garantía del
principio de suficiencia financiera para la
provisión de los distintos servicios públicos
competencia de los diferentes niveles



Txostenek ondorioztatzen duten bezala, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokionez, erreformak lagungarriak izan dira ekitatearen eta progresibitatearen printzipioak indartzeko eta tributu-sistemaren barruan duten birbanaketa-funtzioa areagotzeko. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, arautze berriak Lurralde Historikoko enpresa-jarduera berraktibatzen, enpresa-sarea sendotzen eta enpresen lehiakortasuna sustatzen lagundu du, eta aberastasuna eta enplegua sortzeko palanka bihurtu da.

Aurrekari horietan oinarritzen da egin nahi den berrikuspen fiskala. Horretarako, aipatutako printzipioak areagotuko dira, zeinak Bizkaiko zergapetze pertsonalaren ezaugarri baitira, eta Euskadin politika publikoen helburuak lortzen lagunduko duen zerga-sistemaren diseinuan sakonduko da, arreta berezia jarriz finantza publikoen nahikotasunaren eta zerga-sistemak hazkunde ekonomikoari egiten dion ekarpenaren arteko oreka egokia bermatzeko premiari.

Azken batean, zerga horiek arautuz, batetik, zergok kalitatezko zerbitzu publikoak finantzatzeko diru-sarrerak eskuratzeko balio izatea lortu nahi da, eta, bestetik, katalizatzaile gisa jokatzea, herritarrek gaur egun gertatzen ari diren eraldaketa sozial

institucionales de Euskadi.

Tal y como concluyen los informes, en relación con el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, las reformas han contribuido a reforzar los principios de equidad, progresividad y a intensificar su función redistributiva dentro del sistema tributario. En cuanto al Impuesto sobre Sociedades, la nueva regulación ha contribuido a la reactivación de la actividad empresarial, al fortalecimiento del tejido empresarial y a la competitividad de las empresas del Territorio Histórico, convirtiéndose en palanca para la generación de riqueza y la creación de empleo.

Sobre estos antecedentes se asienta la revisión fiscal que se pretende acometer, acentuando los principios mencionados, que caracterizan la imposición personal en Bizkaia, y profundizando en el diseño de una fiscalidad que coadyuve al logro de los objetivos de las políticas públicas en Euskadi, con especial atención a la necesidad de garantizar el adecuado equilibrio entre la suficiencia de las finanzas públicas y la contribución de la fiscalidad al crecimiento económico.

En definitiva, se pretende que la regulación de estos impuestos además de servir para procurar ingresos que financien servicios públicos de calidad, jueguen como catalizador para posibilitar que la ciudadanía afronte las transformaciones sociales y



eta ekonomikoei aurre egin ahal izan diezaieten, Nazio Batuen 2030 Agendako GJHeKin bat datozen neurriak txertatuz, herritarrei lagunduz eta inor atzean utzi gabe.

Helburu horrekin, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2023-2027 agintaldiko «Bizkaia Denontzat» Plana betetzeko, zergak berrikusteko testu arauemaile bat egin nahi du, Euskadiko gainerako erakundeekin harmonizatuta.

Horrez gain, araudia ikuspegi teknikitik eguneratzeari ekingo zaio, jurisprudenziaren azken erabakietara, legeria substantiboaren aldaketetara eta administrazio-irizpideetara egokitzeko, Bizkaiko tributu-sistemaren koherentzia eta kalitatea hobetze aldera.

Testu arauemailea onartzea beharrezkoa den eta aukerarik egokiena den ala ez

Baliteke berrikusi beharreko zergak arautzen dituzten foru-arauetan ziur aski egingo diren aldaketek eragina izatea zerga-egitatearen, sortzapenaren, zerga-oinarriaren edo likidazio-oinarriaren mugaketan; salbuespen, murrizketa, hobari, kenkari eta gainerako onura edo pizgarri fiskalen ezarpenean, aldaketan edo ezabatzean, edo, azken batean, tributu-zergaren zenbatekoa zuzenean erabakitzen

económicas que se están experimentando en la actualidad, incorporando medidas alineadas con los ODS de la Agenda 2030 de las Naciones Unidas, acompañando a la ciudadanía y sin dejar a nadie atrás.

Con este objetivo, la Diputación Foral de Bizkaia, en cumplimiento de su Plan de Mandato 2023-2027 “Bizkaia Denontzat”, pretende elaborar un texto normativo de revisión fiscal de manera armonizada con el resto de las instituciones vascas.

Adicionalmente, se abordará la actualización de la normativa desde el punto de vista técnico, adecuándola a los últimos pronunciamientos jurisprudenciales, modificaciones de legislación sustantiva y criterios administrativos, en aras a mejorar la coherencia y calidad del sistema tributario de Bizkaia.

Necesidad y oportunidad de la aprobación del texto normativo

Las modificaciones que previsiblemente se adopten en las Normas Forales que regulan las figuras tributarias objeto de revisión pueden incidir en la delimitación del hecho imponible, del devengo, de la base imponible o liquidable, en el establecimiento, modificación o supresión de exenciones, reducciones, bonificaciones, deducciones y demás beneficios o incentivos fiscales, o en definitiva, en otros elementos directamente



duen beste elementu batzuetan. Elementu horiek guztiak foru-arauaren erreserbaren printzipioaren mende daude, zeina Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 7. artikuluan ezartzen baita.

Hori dela eta, aldaketa horiei heltzeko arau-tresna egoki bakarra foru-arau bat egitea eta onestea da, Ekonomia Itunak Bizkaiko foru-erakundeei aitortzen dizkien ahalmenak baliatuz.

Une honetan arlo hori arautzeko aukeraren egokitasunari dagokionez, esan behar da Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenak baliatuz eta herritar guztien interesak zaintzen dituen administrazio gisa, tributua sistema tresna fiskalez hornitzeko hartu duen konpromisoaren ondorio dela. Tresna fiskal horien bidez, beste politika publiko batzuekin batera, bizkaitarrek gaur egungo eraldaketei aurre egitea erraztu nahi da.

Testu arauemailearen helburuak:

Honako helburu hauek ditu aurretiazko kontsulta publikoko prozedura honen mende jarriko den foru-arauak:

1. Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko tributua sistema indartzeko hartutako konpromisoa betetzea, sistema solidario, ekitatezko eta

determinantes de la cuantía de la deuda tributaria; elementos, todos ellos, sometidos al principio de reserva de Norma Foral establecido en el artículo 7 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

Es por ello por lo que el único vehículo normativo adecuado para abordarlas sea la elaboración y aprobación de una Norma Foral, utilizando para ello las potencialidades que el Concierto Económico reconoce a las instituciones forales de Bizkaia.

En cuanto a la oportunidad de abordar en estos momentos la regulación de esta materia, la misma deriva del compromiso de la Diputación Foral Bizkaia, en ejercicio de sus competencias y como Administración que vela por los intereses de toda la ciudadanía, de dotar al sistema tributario de instrumentos fiscales que junto con otras políticas públicas faciliten que las vizcaínas y los vizcaínos afronten las transformaciones actuales.

Objetivos del texto normativo:

La Norma Foral que se somete a este procedimiento de consulta pública previa tiene los siguientes objetivos:

1. Dar cumplimiento al compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia de reforzar el sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia como sistema solidario,



birbanatzaile gisa, zerbitzu publikoen kalitatea ziurtatzeko zerga-bilketaren nahikotasuna berma dezan eta sare ekonomikoaren hazkundeari lagundu diezaion, egungo erronkei arreta berezia eskainiz. Zehazki:

- a) Talderik kalteberenak babestea, zergaren progresibitatearen printzipioa indartuz.
- b) Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboaren bermea.
- c) Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sistemak bultzatzea, lehentasunezko enplegu-sistemen ezarpena indartuz.
- d) Erronka demografikoari erantzutea, familiari, gazteriar, kontziliazioari eta genero-berdintasunari dagokienez.
- e) Trantsizio ekologikoa, mugikortasun berdea, jasagarritasuna eta energia berriztagarrien kontsumoa eta ekoizpena bultzatzea, neutraltasunaren printzipio gidariari jarraituz.

2. Neurri fiskal teknikoak sartzea jurisprudentziaren erabakien, legeria substantiboaren aldaketen eta administrazio-irizpideen ondorioz, tributu-sistemaren kalitatea eta koherentzia hobetzeko.

equitativo y redistributivo, que garantiza la suficiencia de la recaudación para asegurar la calidad de los servicios públicos y que contribuye al crecimiento del tejido económico, con especial atención a los retos actuales. En particular:

- a) Protección a los colectivos más vulnerables, reforzando el principio de progresividad del impuesto.
- b) Garantía del derecho subjetivo de acceso a la vivienda.
- c) Impulso de los sistemas de previsión social voluntaria, potenciando la implantación de los sistemas de empleo preferente.
- d) Respuesta al reto demográfico, en su vertiente familia, juventud, conciliación e igualdad de género.
- e) Impulso a la transición ecológica, a la movilidad verde, a la sostenibilidad, al consumo y a la producción de energías renovables, con el principio rector de neutralidad.

2. Incorporación de medidas fiscales de carácter técnico como consecuencia de pronunciamientos jurisprudenciales, modificaciones de legislación sustantiva y criterios administrativos, en aras a mejorar la calidad y coherencia del sistema tributario.



Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Zerga-araudia Bizkaiko errealitate sozial eta ekonomikora egokitu behar denez, eta foru-arauaren erreserbaren printzipioaren mesedetan, ez dago bestelako aukerarik azaldutako helburuei heltzeko.

Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado

Dada la necesidad de adecuar la normativa tributaria a la realidad social y económica de Bizkaia y en aras al principio de reserva de Norma Foral anteriormente mencionado, no existen otras alternativas para abordar los objetivos expuestos.